| LUZARO | INBERTSIOETARAKO LUZATU MAILEGUAK |
|---|---|
| **MAILEGU-HARTZAILEAREN EZAUGARRIAK** | - ETE EBren definizioaren arabera.<br>- Izan dadila Fondo Propioen zenbatekoa, gutxienez, eskatzen duen maileguaren adinakoa edo, izaera bereko LUZAROko (partaidetzakoa edota finantzak finkatzekoa) beste mailegu bat edo batzuk duenean edo dituenean, aipaturiko maileguaren/maileguen zenbatekoen batuketaren adinakoa.<br>- Enpresa bideragarria izatea LUZAROren iritziz.<br>- Kontabilitate-Plan Orokorrera bildutako enpresa izatea.<br>- Merkataritzako enpresek eskatu aurretik jada 2 urtez egon beharko dute osatuta eta jardunean. |
| **MAILEGUAREN HELBURUA** | **Gabealdi luzearen beharra duten proiektuak finantzatzea, kopuru eta epean osatuaz finantza entitateek epe laburragoetarako emandako finantzaketa.**<br><br>**Proiektuaren besteren finantzapena inbertsioaren %100ekoa izan daiteke; Luzaroren finantzaketa %50ekoa izango da, gehienez, finantza entitateen finantzaketa zuzenaren gain. Gainera, besteren finantzaketaren epea gutxienez Luzarok emandako gabealdiaren berdina izango da.** |
| **ZENBATEKOA** | 100.000 eta 1.500.000 Euroartekoa. |
| **EPEA** | 10 urterarte, inbertsioen arabera (gutxienez 5 urte). |
| **AMORTIZAZIO GABEALDIA** | 5 eta 7urteren tartean, finantza entitateek emandako finantzaketa zuzenaren epeari egokituta.<br><br>Amortizazio kuota baliokideak hiruhileko naturalaren amaieran. |
| **INTERES-TASA** | - Konturako interesa: 6 hilabeterako Euriborra + %2,50 (EBS-ren bermearekin 6 hilabeterako Euriborra + %2,00)<br>- Gehienezko interesa: 6 hilabeterako Euriborra + %3,05 (EBS-ren bermearekin 6 hilabeterako Euriborra + %2,55)<br><br>Likidazioa hiruhileko naturalaren amaieran egingo da. Interes osagarria (gehienez %0,55) urtean behin likidatuko da. Kalkulatzeko, alde batetik mailegariaren ekitaldi osoko zerga aurreko mozkina eta, bere kasuan, gobernu organuen soldatazkoak ez diren ordainsarien aurrekoa eta Luzaroren maileguaren kontura likidatutako finantza kostuak batu behar dira; eta bestetik, mailegariaren batazbesteko baliabide propioen eta Luzaroren maileguaren urteko batazbesteko saldoaren batuketa, honek lehenengo batuketa zatituaz. Lortutako portzentaiak konturako tipoa gaindituko balu, gehienezko hau (konturako interesa eta aurrikusitako osagarriaren batuketa gehienezko muga izanik) izango da urteko likidazio osagarrian aplikatu beharrekoa. |
| **6 HILABETERAKO EURIBORRA** | Erreferentzia bezala aurreko seihileko naturalaren amaierako hilabetearen 15 egunaren bigarren aurreko eguneko 6 hilabeterako Euriborra hartuko da (edo baliogabea balitz, horren aurreko baliodun egunekoa). 6 hilabetero errebisatuko da, seihileko natural bakoitzarentzat. Negatiboa denean zero kontsideratuko da. |
| **URTEKO ITN** | Gutxieneko Urteko ITN: %6,445 (EBS-ren bermearekin %5,945)<br>Gehienezko Urteko ITN: %6,995 (EBS-ren bermearekin %6,495) |
| **KOMISIOAK** | Irikiera komisioa: %0,50a printzipalaren gainean.<br>Berritze komisioa: %0,25a berritutako kopuruaren gainean. |
| **UTB KOMISIOAK BARNE** | **TAE mínima: 6,6812% (con garantía de SGR 6,1556%)**<br>**TAE máxima: 7,2613% (con garantía de SGR 6,7336%)** |
| **AMORTIZAZIO AURRERATUA** | - Kopuruak gutxienez printzipalaren %10ekoa izan beharko du.<br>- Mailegu-hartzailearen Fondo Propioak pareko kopuruan handitu izan beharko dira.<br>- Mailegu-hartzaileak LUZAROri ordaindu beharko dio (ordaindu ez duen neurrian) une horretara bitartean ordaindu dituen interesen eta igaro den urte bakoitzeko interes osagarri maximoa aplikatu izan balitz ordaindu behar izango zukeenaren arteko aldea. |
| **LEHENTASUNA GALDAGARRITASUNEAN ETA ESKATZEN DIREN BERMEAK** | Partaidetzako maileguak menpekoak dira. Eskaera egiten duenaren egoerak bermeak hartzea aholkatzen duenean, hauek, ahal dela izaera pertsonalekoak izango dira eta ahal den neurrian erantzunkizun mankomunatukoak eta akzioetan duen partaidetzaren proportziokoak.<br><br>Berme errealak izaera berezikoetan bakarrik hartuko dira, mailegu-hartzaileak erabiltzen duen ibilgetuaren titulartasuna ondare-erakunde batek duenean, edo bazkideenak titulu pertsonalera.<br><br>►► Arriskuaren analisiak gomendatzen duenean, **enpresa eskatzailearen berme errealak** hartuko dira, partaidetzako izaera eta menpekotasuna galduaz. |
| **ENPRESAREN INFORMAZIO-BETEBEHARRA** | **Urtero, onesten direnetik 15 eguneko epean, Urteko Kontuak entregatu behar ditu (Ekitaldiaren Memoria, Egoera-Balantzea, Emaitzen Kontua)**, dagokion Ikuskaritza-Txostenarekin batera, egin behar izango balu edo zenbatekoa 500.000 eurokoa baino handiagoa balitz eta, bestela, Merkataritza Erregistroko Kontuen Gordailua aurkeztu beharko da.<br><br>Orobat, bilakaera ekonomiko-finantzarioari buruz eskatzen dioten informazio guztia. |

| | |
|---|---|
| **EBSk ABALATZEN DITUEN ERAGIKETEN BESTE EZAUGARRI BATZUK** | - **Azterketa eta formalizazio komisioa**: %0,5, behin bakarrik ordaintzekoa.<br>- **Abalaren komisioa**: Urtean %0,75 eragiketaren saldo biziaren gainean.<br>- **Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza**: Urtean %0,5 eragiketaren saldo biziaren gainean.<br>- **Partaidetza sozialen harpidetza**: EBSk ezartzen duen zenbatekoa. |

## ZER DIRA LUZARO PARTAIDETZAKO MAILEGUAK?

Oso **epe luzerako** maileguak dira,
**gabealdiaren epea** ere **luzea**,
**interes-tasa erakargarria eskaintzen** dute, **galdagarritasuna** gainerako hartzekodunen **mende** utziz (akziodunak izan ezik).

## ZEIN BALDINTZA BETE BEHAR DITU ENPRESA ESKAERAGILEAK?

**ETE izatea:**

Enpresa Txikitzat eta Ertaintzat hartuko dira Europar Batasunean indarrean dagoen arautegiaren arabera horrela kontsideratzen direnak.

**Fondo Propioen** zenbatekoa, gutxienez, **eskatzen duten maileguaren baliokidea izatea.**

## NON ESKURATU ARGIBIDEAK?

**LUZAROn** eta **bazkide** diren Finantza-**Entitateetako** Enpresa-Bulego guztietan.

## NON EGITEN DA IZAPIDEA?

**Bazkide** diren Finantza-Entitateetan, horiek kudeatzen baitute mailegua.

LUZARO
PARTAIDETZAKO MAILEGUAK
PRÉSTAMOS PARTICIPATIVOS